

A.T.2
1936

10

J.
36

A.T.V.
7936

M.-5513 A.T.J.
R.-1826 1936

DOCTRINA CRISTIANA

AITA GASPAR ASTETE JESUITAC
ERDERAZ COMPONDUA.
IPIÑI ZUAN EUSQUERAZ

D. JUAN DE IRAZUSTA

Erretore Hernialdecoac: ceña dan pro-
vincia Goipuzcoakoan, eta abaditu eloz
Encarnacionsta Eucaristiko Miste-
rioen esplikazioa; baita ere confesio-
sio ouaren condicioak eta Acto
Fedeco, Esperanzako eta
Caridadekoak.

TOLOSAN:

Eusebio Lopez-en moldizteguian
1878-garren urtea.

AVISOA.

PECATARI GUZTIENTZAT ONA,

Utzi ezazu, pecataria,
len baño len pecatua,
aparta zaite ocasiotic,
ceñean zauden sartua.

Izan diteque gaurco gabean
zure oyean iltzea,
bai eta ere bigar baño len
infernuetan sartzea.

Utzi ditzagun bicio oec,
ceñac gauzcaten galduric,
eta escatu barcacioa
Jaungoicoari bertatic.

Liburu ontan esaten dana
sinistu eta obratu,
goza dezagun beti gloria,
an gaitezen descansatu.

DOCTRINA CRISTIANAREN
SARRERA.

Cristau fiel guztiac
daude obligatuac
gurutzea adoratzena,
eta debocio izatera:
cergatic Cristoc an
salbatu guinduan
gure pecatuetatia
ta etsaiaren mendetia.

Argatic zaite jarri
santiguatzera sarri,
bai ta ere ciñatzera,
iru gurutze eguitera:
becoquian lenena,
aoan bigarrena,
bestea bularretan,
iru lecu oyentan.

Becoquian libratzeagatic
peasamentu gaistoetatic.

aoan libratzeagatic
itz gaistoetatic,
bularretan libratzeagatic
obra ta deseo gaistoetatic
eguin bada bereala
esaten dezula onela:

Gurutze Santuaren señaleagatic
† gure etsaietatic † libra gaitzatzu
gure Jaunna eta Jaungoicoa † Aita-
ren, ta Semearen, ta Espiritu San-
tuaren icenean. † Amen Jesus.

PATER NOSTERRA.

Aita gurea, cernetan zaudena, santi-
ficatua Izan bedi zure izena, betor
gugana zure erreinua, eguin bedi
zure borondatea, nola ceruan ala
Iurrean.

Egun iguzu gure eguneroco ogua
ta barca guizquiogutzu gure zorrac

guc gure zordunai barcatzen diegun
becela eta ez gaitzatzula utzi tenta-
cioan erortzen, baicican libratu gai-
tzatza gaitzetie. Amen Jesus,

AVE MARIA.

Ave Maria, graciaz betea, Jauna da
zurequin, bedeincatua zerade zu
andre guztien artean, eta bedeinca-
tua da zure sableeco frutua Jesus.

Santa Maria, Jaungoicoaren Ama,
erregutu ezazu gu pecatarioc gatic.
orain eta gure eriotzaco orduan.
Amen Jesus.

CREDOA,

Nic sinisten det, Jaungoico Aita
guztiz poderoso, ceruaren eta lurra-
ren criadoreagan. Eta aren Seme ba-
car Jesucristo gure Jaunagan, ceña

concebitu zan Espíritu Santuaren obraz eta birtutez jayo zan Maria Birgiñagandie, padecitu zuan Poncio Pilatos-en aguinteraren azpian, izandu zan crucificatua, illa eta enterratua. Jechi zan infernuetara, pistu zan illen artetic irugarren egunean. Igo zan ceruetara, an dago eseriric Jaungoico Aita guciz poderosoaren alde escuitic. Andic etorrico da biciac ta illac juzgatzera. Nic sinisten det Espíritu Santuagan, Eliza Ama Santa Católica, santuen comunioa, pecatuen barcacioa, araguiaren resurreccioa eta bicitza seculakoa. Amen.

SALVEA.

Jaungoicoac salba zaitzala, Erre-guiña misericordiaren Ama, bicitza, dulzura ta esperanza gurea, Jaun-

goicoac salba zaitzala. Zare deiez gaude Ebaren ume desterratuac Zugana gaude suspirioz, sentimentuz eta negarrez negarrezco lecu onetan. Ea bada, gure abogada, itzuli itzatu gugana zure begui misericordioso oyec, ta destierro onetatic irteiten gueradenean eracutsi eguiguzu Jesus, zure sabeleko frutu bedeinatura ; Oh clementísima! ; Oh piadosa! ; Oh misericordiosa! ; Oh dulce Birgina Maria! Erregutu ezazu gugatik Jaungoicoaren Ama Santa, mereci dezagun alcantzatza Jesucristoren promesac. Amen.

JAUNGOICOAREN LEGUECO MADAMENTUAC DIRA AMAR.

Lenengo irurac pertenecitzen zaizca Jaungoicoaren onrari, eta beste

zazpirac progimoaren provechuari.

**Lenengoa, Jaungoicoa amatzea
gauza guztien gañean.**

**Bigarrena, juramentu alferric ez
eguitia.**

**Irugarrena, jai egunac santifica-
tzea:**

**Laugarrena, aita eta ama onra-
tzea.**

Bostgarrena, iñor ez iltzea.

**Seigarrena, Iujuriaco pecaturic ez
eguitea.**

Zazpigarrena, ez ostutzea.

**Zortzigarrena, testimonio falsoric
ez jasotzea eta guezurric ez esatea.**

**Bederatzigarrena, progimoaren
emazteric ez deseatzea.**

**Amargarrena, besteren gauzaric
ez deseatzea.**

**Amar mandamentu oec encerra-
tzen dirade bitan: serbitza eta ama-**

zea Jaungoicoa gauza gucien ga-
ñean ta progrimoa gure buruac be-
cela.

ARTICULO FEDECOAC DIRADE AMALAU.

Lenengo zazpirac pertenecitzen zaizca divinadadeari, eta beste zazpirac gure Jaun Jesucristo Jaungoico eta guizon eguiatzcoaren humanidade Santuari.

DIVINIDADEARI PERTENECITZEN ZAIZCANAC DIRADE OEC.

Lenengoa sinistea Jaungoico guciz poderoso bacar bategan.

Bigarrena, sinistea Aita dala.

Iragarrena, sinistea Semea dala.

—10—

Laugarrena, sinistea Espiritu Santua dala.

Bostgarrena, sinistea Criadorea dala.

Seigarrena, sinistea Salbadorea dala.

Zazpigarrena, sinistea Glorificadorea dala.

UMANIDADE SANTUARI PERTENEZI-
TZEN ZAIZCANAG DIRADE OEG.

Lenengoa, sinistea Jesucristo gure Jauna guizona dan partetic concebitu zala Espiritu Santuaren obraz.

Bigarrena, sinistea jayo zala Santa Maria Birgiñagandic, Señora au zala Birgiña Cristo jayo baño len, jayotzean eta jayo ezquiero.

Irugarrena, sinistea erreccibitu ci-

—44—

tuala eriotza ta pasioa gu pecalariac salbatzeagatic.

Laugarrena, sinistea jechi zala infernuelara, eta aren etorrera santuari icedoden ceuden anima justuac libratu cituala.

Bostgarrena, sinistea resucitatu zala illen artetie irugarren egunean.

Seigarrena, sinistea igo zala cruelara eta dagoala eseriric Jaungoico Aita gueiz poderosoaren alde escuitic.

Zazpigarrena, sinistea etorrico dala biciac eta illae juzgatzera: auda, onai ematera gloria, ceren aren mandamentuac gorde cituen, eta gaistoi penas seculacoa, ceren gorde ez cituen.

DOCTRINA CRISTIANAREN
DECLARACIOA, GALDETZEN ETA
ERANTZUTEN DALA.

GALDETZEN DET: ¿Cerade Cristaba?
ERANTZUTEN DET: Bai jauna, Jaun-
goicoaren graciaz.

G. ¿Cristabaren icen ori norgandic
izan cenduan?

E. Cristo gure Jaunagandic.

G. ¿Ger esan nai du Cristabac?

E. Cristoren guizona.

G. ¿Cer aditzen dezu Cristoren gui-
zonagatic?

E. Cristoren fedea duan guizona,
ceña errecibitu zuan bataiatzean-
ta dagoan ofrecituric aren serbi-
cio santura.

G. ¿Cer da cristabaren señalea?

- E. Gurutze Santua.
- G. ¿Cergatic?
- E. Cergatic dan Cristo crucificatua-ren figura, bada gurutzean redi-mitu guinducen.
- G. Cembat modutan eguiten du cristabac señale au?
- E. Bitan.
- G. ¿Cein dirade?
- E. Ciñatzea la zantiguatzea.
- G. ¿Cer gauza da ciñatzea?
- E. Iru gurutze eguitea escuico es-cuaren aurreneco beatzarequin: lenengoa becoquian, bigarrena aoan, irugarrena bularretan, itz eguiten dala Jaungoico gure Jau-narequin.
- G. Eguin ezazu nola?
- E. Gurutze Santuaren señaleagatic †gure etsaietatic † libra gaitza-tzu, gure Jauna eta Jaungoicca. †

- G. ¿Cergatic ciñatzen cerade beco-quian?
- E. Libratzeagatic Jaungoicoac pensamentu gaistoetatic.
- G. ¿Cergatic aoan?
- E. Libratzeagatic Jaungoicoac itz gaiztoetatic.
- G. ¿Cergatic bularretan?
- E. Libratzeagatic Jaungoicoac obra eta deseo gaistoetatic.
- G. ¿Cer da santiguatzea?
- E. Eguitea gurutze bat escuico escuaren beatz biaquin, becoquitic bularretaraño, ta sorbalda ezquerrecotic escuicoraño; deitzen zaiola Trinidade Santisimoari.
- G. Eguin ezazu nola:
- E. Aitaren, eta Semearen, eta Espíritu Santuaren icenean. + Amen Jesus.
- G. ¿Noiz eguin bear dezu señaleau?

- E. Obra onembañ asitzen dan guztian, edo arquitzen naicenean necesidate, tentacio edo peligroren batean; principalmente oetic jaiquitzean, echetic irtelean, elizan zartzean, jateracoan eta lo eguitracoan.
- G. ¿Cergatic orrembeste bider?
- E. Cergatic dembora eta lecu guztietan gure etsaiac perseguitzen gaituen.
- G. ¿Cer etsai dirade oriec?
- E. Mundua, Demonioa eta Araguia.
- G. Esan eguidazu bada: Gurutzeac badu birtutea etsai orien contra?
- E. Bai jauna.
- G. ¿Nundic izan zuan gurutzeac birtute ori?
- E. Bencitzeagandic Cristoc gurutzean etsai oiéc bere eriotzarequin.

- G. ¿Gurutzea adoratzen dezunean cer esaten dezu?
- E. Adoratzen eta bedeincatzen zaitut Cristo, cergatic zure gurutze santuarequin redimitu cenduan mundua.

DOCTRINA CRISTIANAREN.
PARTICIOA.

Ecusi det Cristaba cerala cristabaren ice nagatic eta señaleagatic; Esan eguidazu orain:

- G. ¿Cembañ gauza jaquin bear ditu cristabac uso arrazoizcoa izatera allegatzen danean?
- E. Lau gauza.
- G. ¿Cein dirade?
- C. Jaquitéa cer sinistu bear duan, cer oracio eguin bear duan, cer

- obratu bear duan, eta ser erreccibitu bear duan.
- G. Nola jaquingo du cer sinista bear duan.
- E. Jaquiñarequin credoa eta articulu fedecoac.
- G. Nola jaquingo du cer oracioeguin bear duan.
- E. Jaquiñarequin Pater nosterra ta Elizaco beste oracioac.
- G. Nola jaquingo du cer obratu bear duan.
- E. Jaquiñarequin Jaungoicoaren legueco mandamentuac, Eliza Ama Santarenac eta obra misericordiazcoac.
- G. Nola jaquingo du cer erreccibitu bear duan.
- E. Jaquiñarequin Eliza Ama Santaren Sacramentuac.

DOCTRINA CRISTIANAREN

LENENGO PARTEA CEÑEAN DECLARATZEN DIRADEN CREDOA ETA ARTICULUAC.

- C. **N**orc esan zuan Credoa.
E. Apostoloac.
G. Certaco.
E. Guri fede santuco gauzac era-custeco.
C. Ta zuc certaco esaten dezu.
E. Cristabae degun fede au confe-zazeco.
G. Cer gauza da fedea?
E. Icusi ez deguna sinistea.
G. Icusicenduan zuc Cristo jayotzen?
E. Ez jauna,
G. Icusi cenduan iltzen edo cerueta-ra igotzen.
E. Ez jauna.
G. Sinisten dezu.

- E. Bai jauna, sinisten det.
- G. Cergatic sinisten dezu?
- E. Cergatic Jaungoicoac errebelatutric, Eliza Ama Santac onela era custen digun.
- G. Cer gauza dira cristabac becela dituzunac eta sinisten dituzunac
- E. Ama Eliza Santa Erromacoac dituanac.
- G. Cer da zuc eta Erromaco Elizac dezuena ta sinisten dezuena?
- E. Articulu fedecoac, principalmente credoan dauden becela.
- G. Cer gauza dirade articulu fede coac?
- E. Dirade fedeco misterioric principalenac.
- . Certaco dirade articulu fedecoac
- E. Emateco noticia Trinidade Santisimoaren eta gure Redentore Jesucristorena.

- G. Nor da Jaungoicoa?
- E. Da gauza bat esan eta pensatn alditequean baño ere excelenteagoa ta admirableagoa; Jaun bat infinitamente poderosoa, sabioa, justua, principioa eta fiña ganza guztien.
- E. Trinidade santisimoa nor da?
Da Jaungoicoa bera: Aita eta Semea eta Espíritu Santua iru persona diferenteac eta Jaungoico eguiazco bat.
- G. Aita Jaungoicoa da?
- E. Bai jauna.
- G. Semea Jaungoicoa da?
- E. Bai jauna.
- G. Espíritu Santua Jaingoicoa da?
- E. Bai jauna.
- G. Iru Jaungoico dira?
- E. Ez da Jaungoico eguiazco bat baicic.

- G. Aita Semea da?
- E. Ez jauna.
- G. Espiritu Santua da Aita edo Semea?
- E. Ez jauna.
- G. Cergatic?
- E. Cergatic personac diraden diferenteac jaungoico eguiazco bat bada ere.
- G. Nola da Jaungoico guciz poderosoia?
- E. Cergatic bere nai izatearequin, beste gabe, eguiten duan nai duan guztia.
- G. Nola da Criadorea?
- E. Cergatic ecerecetic eguin cituan gauza guztiac.
- G. Nola da salbadorea?
- E. Cergatic ematen digun gracia eta barcatzen dizquigun pecatuac.
- G. Nola da Jaungoico glorificadorea?

- E.** Cergatic ematen dion gloria arend
gracian irauten duanari.
G. Jaungoicoac badu gorputzaren
figuraric guc becela?
E. Ez du Jaungoicoa dan partetic
cergatic dan espiritu purua, baña
badu guizona dan partetic.
G. Iru personetatic ceiñ eguin zan
guizon?
E. Bigarrena, ceña dan Semea.
G. Aita eguin zan guizon?
E. Ez jauna.
G. Espíritu Santua eguin zan gui-
zon.
E. Ez jauna.
G. Ceiñ eguin zan bada?
E. Semea bacarric, ceñari guizon-
eguiñic deritza Jesucristo.
G. Beraz orrela nor da Jesucristo?
E. Da Jaungoicoaren seme bicia,
guizon eguin zana gu salvalzea-

- gatic eta nola bici eracusteagatic.
- G. Cer esan nai du Jesusec?
- E. Salbadorea edo libratzallea.
- G. Gergatic salbatu edo libratu guinducen?
- E. Gure pecatuetatic eta demonioaren mendetic.
- C. Cer esan nai du Cristoc?
- E. Untatua.
- G. Certzaz izandu zan untatua?
- E. Espíritu Santuaren graciaz eta doiaiz.
- G. Cristo gure Jauna nola izandu zan concebitua ta jayo zan Ama Birgiñagandic?
- E. Eguiten zuala Jaungoicuac obra milagrosoa.
- G. Ta Cristoren Ama gueroz beti izandu zan Birgiña?
- E. Bai jauna beti ixandu zan Birgiña.

- G. Cergatic nai izandu zuan ill gutzeau?
- E. Gu pecatutic eta eriotzatic libratzeagatic.
- G. Cer aditzen dezu Cristo ill ezkerro jechi zala infernuetara?
- E. Ez det aditzen condenatuen lekura, baicican Limbora, justua ceudenera.
- G. Nola jechi zan?
- E. Cristoren anima Jaungoicotasanarequin unituric.
- G. Ta gorputza nola guelditu zan?
- E. Jaungoicotasanarequin berarequin unituric.
- G. Nola pistu zan irugarren egunean?
- E. Biurtzen ciradela juntalzera aren gorputza eta anima gloriosoa ez gueyago iltceco.
- G. Nola igo zan ceruetara?

- E. Bere birtute propioarequin.
- G. Cer da egotea eseriric Aita Jaungoicoaren alde escuitic?
- E. Itzatea Aitac aiinbat gloria Jaungoicoa dan partetic, ta guizona dan partetic beste guciak daño gueyago.
- G. Noiz etorrico da biciac eta illac juzgatzen?
- E. Munduaren azquenean edo acaberan.
- G. Ta orduan ill guciak bear dute pistu?
- E. Bai jauna, izandu citazten anima ta gorputzarequin berarequin.
- G. Cer sinisten dezu ezaten dezenean sinisten det Santuen Comunioa?
- E. Cristau fiel guciak dutela parte besteen ontasun espiritualetan,

gorputz baten miembroac becela,
ceña dan Eliza.

G. Cer da Eliza?

E. Da cristau fielen congregacioa,
Ceñaren burua dan Erromaco
Aita Santua.

G. Nor da Aita Santua.

E. Da Cristoren Bicarioa lurrean, ce-
ñari guztioc gauden obligatuac
obedecitzera.

G. Sinisten desu credoa eta articu-
luaz gañera beste gauzaric.

E. Bai jauna, Escritura Sagraduan
dagoana ta Jaungoicoac Elizari
errebelatu dion guztia.

G. Cer gauza dirade oriec.

E. Ez dizadazula ori galdeitu neri,
bada naiz ignorantea, baditu Eli-
za Ama Santac doctoreae jaquin-
go dutenac eranizuten.

M. Ongui diozu, bada doctoreas

bear due eman contu gure fede
santuco gauza guztiena, eta ez
zuc; zuretzat asco da ematea arti-
culuena credoan dauden becela.

DOCTRINA CRISTIANAREN

BIGARREN PARTEA. CEÑEAN DECLA-
RATZEN DAN CER ESCATU BEAR
DAN ETA ELIZA AMA SANTAREN
ORACIOAC.

Ecusi det nola daqnizun cer sinistu
bear dezun, ceña dan leñengo ja-
quin bear dan gauza; guacen bigar-
rrenera, ceña dan cer escatu bear
dan jaquitea. Esan ezazu:

- G. ¿Norc esan zuan Aita gurea?
E. Jesucristoc bere aotic.
G. ¿Certaco?
E. Guri oracio eguiten eracusteco.

- G. ¿Cer da oracioa eguitea?
- E. Da jasotzea biotza Jaungoicoagan eta escatzea mesedeac.
- G. ¿Pater nosterra esaten dezunean norequin itz eguiten dezu?
- E. Jaungoico gure Jaunarequin.
- G. ¿Nun dago Jaungoico'gure Jauna?
- E. Lecu gucietan, especialmente ceruan eta Sacramentu Santu Aldarecoan.
- G. ¿Cein da oracioetan onena?
- E. Aita gurea.
- G. ¿Cergatic?
- E. Cergatic Apostoluac escatu eta esan zuan Jesucristoc bere aotic.
- G. Cergatic gueyago?
- E. Cergatic dituan zazpi peticio caridade gucian fundatuac.
- G. Cein dirade.
- E. Lenengoa, santificatua izan bedi zure icena.

G. Cer escatzen dezu eticio orretan.

E. Jaungoicoaren icena izan dedita ezagutua eta honratua mundu guztian.

G. Cein da bigarrena?

E. Betor gugana zure erreinoa.

G. Cer escatzen dezu peticio orretan?

E. Reina dezala Jaungoicoac gure animetan emen lurrean graciarequin eta guero eman dizagula gloria.

G. Cein da irugarrena?

E. Eguin bedi zure borondatea nola ceruan ala lurrean.

G. ¿Cer escatzen dezu peticio orretan?

E. Eguiñ dezagula Jaungoicoaren borondatea lurrean gaudenac bienaventuraduac ceruan eguiten duen becela.

- G. Cein da laugarrena?
- E. Eman iguzu gure egunero oguia.
- G. ¿Cer escatzen dezu peticio orretan?
- E. Eman dizagula Jaungoikoac gorputzarentzat mantenu combeni zaiguna ta animarentzat graciaren mantenu espirituala ta Sacramentuac.
- G. ¿Cein da bostgarrena?
- E. Barca guizqui gutzu gure zorrac guegueren zordunai barcatzen diegun becela.
- G. Cer escatzen dezu peticio orretan?
- E. Barca deguizqui gula Jaungoikoac gure pecatuac guegueren barcatzen diegun becela agrabiatu gaituenai eta gaizqui eguin diguenai.
- G. ¿Cein da seigarrena?

- E. Ez gaitzatzula utzi tentacioan erortzen.
- G. ¿Cer escatzen dezu peticio orretan?
- E. Ezdigula utzi Jaungoico gure Jaunac erortzen eta consentitzen pensamentu eta tentacio gaistetan.
- G. ¿Cein da zazpigarrena?
- E. Baicican libratu gaitzatzu gaitzetic.
- G. ¿Cer escatzen dezu peticio orretan?
- E. Libra gitzala Jaungoico gure Jaunac animaco eta gorputzeco gaitz eta peligro guztietaic.
- G. ¿Cergatic esaten dezu lenengo Aita gurea ceruetan zaudena?
- E. Jasotzeco biotza Jaungoicoagana, eta escatzeco mesedeac umildade eta confianzarequin.

- G. ¿Cer esan nai du itz. *Amen* az-
quenean añaditzen dezun arc?
- E. Ala izan dedilla.
- G. ¿Cer oracio esaten diozcatzu prin-
cipalmente Birgiña Soberanari?
- E. Ave Maria edo Salvea.
- G. ¿Esan ezuzu: norc esan zuan
Ave Maria?
- E. Ainguero San Grabielec Maria
Birgiña bisitatzeria elorri zanean.
- E. ¿Norc esan zuan salvea?
- E. Ama Eliza Santac, ceñac dadu-
can erreccibituri.
- G. ¿Certaco?
- E. Faboreac escalzeco Aingueruen
erregiña Maria Santissimari.
- G. ¿Ave Maria edo salvea esaten
dezunean norequin itz eguiten
dezu?
- E. Gure Señora María Birgiñare-
quin.

- G. Nor da gure Señora Maria Birgiña?
- E. Da Señora birtutez eta graciaz bete bat, ceña dan Jaungoicoaren Ama eta dagoan ceruan.
- G. Eta aldarean dagoana nor da?
- E. Da ceruan dagoanaren imagiña ta semejanza bat.
- G. Certaco dago an?
- E. Aldarean dagoana ecusi ta acorda gaitezen ceruan dagoanz, eta cergatic dan aren imagiña erreberenciatu dezagun,
- M. Au beran eguin bear dezu beste Santuen imagiñaquin.
- G. Eguin bear diegu oracio Santuai ere?
- E. Bai jauna, gure medianero edo favorecitzalleai becela.
- G. Cer gauza dira Ainguerauac?
- E. Dirade espiritu bienaventuradu

batzuee, daudenac ceruan Jaungoicoaz gozatzen

G. Certaco criatu cituan Jaungoico gure Jaunac?

E. Eternidade gucian alabatu eta bedeincatu dezaten.

G. Certaco gueyago?

E. Aren Ministroac becela goberna dezaten Eliza, ta gorde ditzaten guizonac.

G. Beraz badezu zuc Aingueru guar-dacoa.

G. Bai jauna, badet, eta guizon ba-coitzac du bere Aingueru guar-dacoa.

M. Izan eguziozu bada devocio, eta erregutu eguziozu egunero falta bague.

DOCTRINA CRISTIANAREN

IRUGARREN PARTEA, CENEAN DECLARA RATZEN DAN CER OBRATU BEAR DAN.

Ecusi det nola daquizun cer sinistu bear dezun, ta cer oracio egun bear dezun: ecusi dezagun orain nola daquizun cer obratu bear dezun. Cristauac becela esan ezazu:

G. Cein de Jaungoicoaren leguecco lenengo Mandamentua?

E. Jaungoicoa amatzea gauza gucien gañean.

G. Norc amatzen du Jaungoicoa?

E. Aren mandamentuac gordetzen dituanac.

G. Cer da Jaungoicoa gauza guzlien gañean amatzea?

- E. Naiago izatea galdu bicitza Jaungoicoa ofenditu baño.
- G. Certara gueiago obligatzen du mandamentu onec?
- E. Jaungoicoa bacarric adoratzera gorputzeco eta animaco reberen- ci guztiarequin, sinisten eta es- peratzen dala beregan fede osoa- requin.
- G. Norc eguiten du pecatu manda- mentu onen contra?
- E. Idoloac edo Jaungoico falsoac adoratzen dituanac, eta aietan si- nisten duanac.
- G. Ta norc gueyago?
- E. Aztquierietan edo gauza super- ticiosoetan, sinisten duenac.
- G. Cein da bigarrena?
- E. Juramentu alferri ez eguitea.
- G. Norc eguiten du juramentu al- ferric?

- E. Juramentu eguiten duanac egua
bage, justicia bague eta premia
bage.
- G. Pecatu da juramentua alferra
eguitea criaturacgatic?
- E. Bai jauna, cergatic onetan egui-
ten zaion juramentu Criadoreari.
- G. Cer erremedio da ez eguiteco
juramentu alferric?
- E. Acostumbratzea esatera bai edo
ez, Cristoc eracusten digun be-
cela.
- G. Cein da irugarrena?
- E. Jai egunac santificatzea.
- G. Nore santificatzen ditu jai egu-
nac.
- E. Meza osoa entzuten duanac ta
premia bague ayetan bearri-
eguiten ez duanac.
- G. Cein da laugarrena?
- E. Aita eta ama onratzea.

- G. Norc orratzen ditu gurasoac?
- E. Obeditzen dienac, socorritzen ta erreberenziatzen dituenac.
- G. Nor aditzen dirade besteric gurasotzal?
- E. Aundiagoac edadean, dignida-
dean eta Igobiernoan.
- G. Cein da hostgarrena?
- E. Iñor ez iltzea.
- G. Cer againtzen da mandamentu
onetan?
- E. Ez eguitea iñori gaitzic ez itzez,
ez obraz, eta ez deseoz.
- G. Cein da seigarrena?
- E. Lujuriaco pecaturic ez eguitea,
- G. Cer againtzen da mandamentu
onetan?
- E. Izan gaitecela garbiac eta cas-
toac pensamentuetan, itzetan eta
obretan.
- G. Cein da zazpigarrena.

- E. Ez oztutzea.
- G. Cer againtzen da mandamentu onetan?
- E. Ez quentza, ez eduquitza eta ez nai izatea besteren gauzaric ja-bearen borondatearen contra.
- G. Cein da zortzigarrena?
- E. Testimonio falsoric ez jazotza eta guezurric ez esatea.
- G. Cer againtzen da mandamentu onetan?
Ez eguitea projimoaren contra juicio gaiztoric, ez esatea eta ez aditza aren faltac.
- G. Norc ausitzen du mandamen-tu au?
- E. Arrazoyaren contra guzgatzen duanac, fama quentzen duanac, secretoa descubritzen duanac edo, guezurra esaten duanac.
- G. Cer eragozten da bederalziga-

rren eta amargarren mandamen-tuetan?

E. Deshonestidadearen eta haciendaren deseoa.

M. Esan itzatzu Ama Elisa Santaren mandamentua.

AMA ELIZA SANTAREN MANDAMEN-TUAC DIRADE BOST.

Lenengoa, igandeetan eta beste ja-yetan Meza osoa entzutea.

Bigarrena urtean bein guchienaz confesatzea, edo lenago, iltceco peligrorik esperatzen badu,

Irugarrena, Pazcoa Resurrecioetan comulgatzea.

Langarrena, Ama Eliza Santac aguilotzen duanean barautzea.

Bostgarrena, amarrenac eta primiciac pagatzea.

- G. Certaco dirade mandamentu oec?
E. Obeto gordetzeko mandamentu
divinoac.
M. Esan itzatzu Obra misericordiaz-
coac.

OBRA MISERICORDIAZCOAC DIRADE
AMALAU: ZAZPI ESPIRITUALAC
ETA ZAZPI CORPORALAC.

Zazpi espiritualac dirade oec.

Llenengoa, ezdaquianari eracunstea;
bigarrena, premia duanari conseju
ona ematea; irugarrena, gaizqui
eguiten duana corregitzea; lauga-
rrena injuriac barcatzea; bosgarre-
na, triste dagoana consolatzea; sei-
garrena, gure projimoen miseriak
eta flaquezac pacienciarequin sufri-

tzea: zazpigarrena, biziagotic eta illacgotic Jaungoicoari erregutzea.

Zazpi corporalac dirade oec.

Lenengoa, enfermoac bisitatzea; bigarrena, goseac dagoanari jaten ematea; irugarrena, egarriac dagoanari edaten ematea; laugarrena cantiboac erreescatatzea; bosgarrena, larru gorrian dagoana jantxitzea seigarrena, peregrinoari ostatu ematea: zazpigarrena, illac enterratza. G. Cergatic deitzen zaie obra misericordiazcoac?

E. Cergatic ez diraden zor juzticiaz.

G. Noiz obligatzen dute pecatu mortalaren azpian?

E. Guizon dizcretoen juicioan grabeac diraden necesidadeetan.

DOCTRINA CRISTIANAREN

LAUGARREN PARTEA, CEÑEAN DECLARA
RATZEN DIRADEN SACRAMENTU
ERRECIBITU BEAR DIRANAC.

Ecusi det nola daquizun cer sinistu, cer oracio eguin eta cer obratu bear dezun: ecusi dezagun orain nola daquizun cer errecibitu bear dezun, ceña dan azqueuecoa. Esan itzazu Ama Eliza Santaren sacramentuac.

**A MA ELIZA SANTAREN SACRAMENTUAC
DIBADE ZAZPI.**

Lenengo bostac dirade necesarioac edo errecibitu bear diradenac obrak

edo deseoz, eta oec bague ecin salba diteque guizona utzitzen baditu menosprecioz: beste biac dirade borondatezcoac. Lenengoa, bautismoa: bigarrena, confirmacioa: irugarrena, penitencia: laugarrena, comunioa: bostgarrena, extrema-uncioa: seigarrrena, sacerdoteen ordena: zazpigarrena, matrimonioa.

G. Cer gauza dirade Sacramentuac?

E. Dirade señale batzuec eguin ci tuanac Jesucristo gure Jaunac emateko guri oequin bere gracia eta birtuteac.

G. Cer gauza da gracia?

E. Da izate dibino bat eguiten duana guizona Jaungoicoaren Seme eta ceruaren eredero.

G. Cer birtute ematen ditue sacramentuac graciarequin batean?

- E. Principalmente iru teologalac eta dibinoac.
- G. Cein dirade?
- E. Fedea, Esperanza eta Caridadea.
- G. Cer gauza da fedea?
- E. Sinistea ecusi ez guenduena, cergatik Jaungoicoac ala errebelatu duan.
- G. Cer gauza da esperanza?
- E. Esperatzea gloria eta ondasun eternoac Janngoiocoaren graciaren eta gure obra onen medioz.
- G. Cer gauza da caridadea?
- E. Amatzea Jaungoicoa gauza gustien gañean, eta gure projimoa gueren buruac becela, izaten gerala aiequin, ayec gurequin izatea nai degun becela.
- G. Certaco izandu zan eguiña Sacramentu Santu Bautismocoa?
- E. Quentzeco pecatu originala ta

bataiatzen danagan arquitzen dan
beste edocein.

- G. Cer gauza da pecatu originala?
- E. Pecatu ura, ceñarequin jaiotzen
gueraden, eredaturic gure lenen-
go gurasoetatic.
- G. Certaco da Sacramento Santu
Confirmaciocoa?
- E. Confirmatzeko eta ipintzeco fuer-
te Bautismoan errecibitu guen-
duan fedeian.
- C. Certaco da Sacramento Santu pe-
nitenciacoa?
- E. Bataiatu ezquero eguindako pe-
catuac baratzeko.
- G. Cer pecatu dirade oriec?
- E. Pecatu mortalac principalmente,
eta baita benialac ere.
- G. Cer gauza da pecatu mortalak?
- E. Da esatea, eguitea, pensatzea edo
deseatsea cerbait gure Jaungoico

Soberanoaren legue Santuaren
contra gauza grabea,

- G. Cergatic deritza mortala?
E. Cergaticiltzen duan eguiten dua-
naren anima.
G. Cer parte ditu penitenciac quen-
tzeco pecatu mortala?
E. Iru jauna.
G. Cein dirade?
E. Biotzeco contricioa, aozco confe-
sioa eta obrazco satisfacioa.
G. Pecatariac pecatu mortalean eror-
tzen dan gucian bear du confesa-
tu bereala pecatuac baratzeko?
E. Ongui izango litzaque, baña ez
da precisoa.
G. Cer eguin bear du bada?
E. Bere pecatuen dolore eguiazcoa
eduquitzea enmendatzeko eta con-
fesatzeko proposituarequin. Ama
Eliza Santac againtzen duanean,

- G. Cer da pecatu veniala?
E. Da pecatu mortalaren disposicio bat.
G. Cergatic deritza beniala?
E. Cergatic erraz erortzen dan guizuna arlan, eta erraz barcatzendenan.
G. Cembañ gauzagatic barcatzen da?
E. Bederatzigatic.
G. Cein dirade?
E. Lenengoa, meza entzuteagatic; bigarrena, comulgatzeagatic; irugarrena, confesio generalagatic; laugarrena Obispoaren bendicio agatic; bostgarrena, ur bedeineatuagatic; seigarrena ogui bedeinatuagatic; zazpigarreua, Aita gurea esateagatic; zortzigarrena, sermoia aditzeagatic; bederatzigarrena pechuco golpeagatic, escazen zaiola barcacioa Jaungoico gure Jaunari.

- G.** Certaco da Sacramentu Santu Comuniocoa?
- E.** Errecibitzen degula bear dan disposicioarequin, izan dedin gure animen mantenimentu eta aumenta dizagun beraren gracia.
- G.** Cer errecibitzen da Sacramentu Santu onetan?
- E.** Jesucristo gure Jauna, Jaungoico eta guizon eguiazcoa, ceña dagoan eguiaz Sacramentu Santu aldarecoan.
- G.** Certaco da Sacramentu Santu Extrema-unciooa?
- E.** Iru gaucetaraco,
- G.** Cein dirade?
- E.** Lenengoa, bicitza gaizto pasatuaren arrasto eta reliquiac quentzeco: bigarrena, animari indarra emateko demonioaren tentacioen contra: irugarrena, gorputzari

osasuna emateco conveni bazayo.

G. Certaco da Sacramento Santu Ordenacoa?

E. Consagratzeco eta ordenatzeco Elizaco Ministro dignoac, nola diraden Sacerdoteac, diaconoac eta beste gañeracoac.

G. Certaco da Sacramento Santu matrimoniooa?

E. Ezcontzeco eta emateco ezcondjai gracia, onequin bici ditecen baquean eta criatu ditzaten semeac ceruraco,

PECATU CAPITALAC DIRADE ZAZPI.

Lenengoa, soberbia: bigarrena, abaricia: irugarrena, luxuria: laugarena, ira: bostgarrena, gula: seigarrrena; envidia: zazpigarrena, naguitasuna.

- G. Cergatic deitu diezu pecatu capitalac zazpi gueyenean mortalac esaten zayenai?
- E. Deitu diet capitalac cergatic diraden beste bicio ayetatic jaiotzen diradenen buruac, iturriac eta sustrayac becela, eta morlalac deitzea ez dator aiñ ongui, bada ascotan ez dirade venialac baño gueyago.
- G. Noiz dirade mortalac?
- E. Jaungoicoaren eta projimoaren caridadearen contra diradenean.
- G. Noiz dirade caridadearen contra?
- E. Aequin ausitzen danean Jaungoicoaren edo Elizaren mandamentuaren bat gauza gravean.
- G. Cer da soberbia?
- E. Besteac baño gueyago izateco apetitu desordenatu bat.
- G. Cer da avaricia?

- E. Aciendaren apetitu edo deseo desordenatu bat.
G. Cer da luxuria?
E. Araguiaren gusto cíquihen apetitu desordenatu bat.
G. Cer da ira?
E. Bengantzaren deseo desordenatu bat.
G. Cer da gula.
E. Jateco eta edateco deseo gueyegui bat.
G. Cer da envidia?
E. Besteren onaren damutasuna.
G. Cer da naguitasuna?
E. Obra onac eguiteco animoaren falta.

ZAZPI BICIOEN CONTRA DIRADE,
ZAZPI BIRTUTE.

Soberbiaren contra, umildadea;

abariciaren contra, liberalidadea; lu-juriaren contra, castidadea; iraren contra, paciencia; gularen contra, templanza; envidiaren contra, cari-dadea: naguitasunaren contra, dili-gencia.

ANIMAREN ETSAIAC CEÑETATIC IGUES-EGUIN BEAR DEGUN DIRADE IRU.

Lenengoa, mundua: bigarrena, de-monioa: irugarrena, aragua.

G. Nola igues eguiten da mundua-gandic?

